

Talaia Feminista

2024ko
dosierraren
gako mezuak
eta 2025eko
Tfem Unean
egindako
ekarpenak

DOSSIER **Tfem**
TALAIA FEMINISTA

Izenburua

Talaia Feminista. 2024ko dosierraren gako mezuak eta 2025ko Tfem Unean egindako ekarpenak

Egilea

Talaia Feminista

Itzulpena

2024ko dosierraren gako mezuak: Aiora Jaka Irizar.
2025ko Tfem Unean egindako ekarpenak: Maku Florentino Garbizu

Disenua eta maketazioa

Lubaki Grafik Faktory

Argitalpen data

2025eko martxo



Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin 4.0 Nazioartekoa

Kode Legala

<https://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/4.0/>

Aurkibidea

2024ko dosierraren gako mezuak	7
1. 2024: Biolentzia areagotu den urtea	7
1.1. Indarkeria matxista.....	7
1.2. Lurraldea	8
1.3. Gerra eta gatazka armatuak	9
1.4. Eskuin-muturra.....	10
1.5. Erresistentziak.....	11
2. Berdintasun politika publikoak.....	13
2.1. Sarrera	13
2.2. Berdintasun politika publikoen sorrera Euskal Herrian.....	13
2.3. Berdintasun politikak. Lorpenak, zailtasunak eta ikaspenak	15
2.4. Berdintasun politika publikoak aurrera begira: zer jauzi, eraldatzaileak izan daitezen?	18
3. Osasun mentala: gaixotu dugun mundu baten sintoma gara	20
3.1. Arazo bat dugu? Zer arazo?	20
3.2. Osasun mentalari eskaintzen zaion osasun-arreta	21
3.3. Ezinegonaren jatorri sozialak	21
3.4. Ortzi-mugak	22
2025eko Tfem Unean egindako ekarpenak	25
1. 2024: Biolentzia areagotu zen urtea	25
1.1. Biolentziak berrantolatzea eta larriagotzea	25
1.2. Feminismoarentzako erronkak	27
2. Berdintasun politika publikoak.....	29
2.1. Berdintasun politika publikoak eta egiturak.....	29
2.2. Zeharkakotasunaren estrategia	30
2.3. Institutuzioen eta mugimendu feministaren arteko erlazioak	30
2.4. Aurrera begiratzeko ideiak.....	32
2.5. Egin beharreko eztabaidak	33
3. Osasun mentala: gaixotu dugun mundu baten sintoma gara	34
3.1. Zergatik gai hori?	34
3.2. Dokumentuaren gaineko iritzi orokorra	34
3.3. Ekarpinak: elementu berriak eta sakondu beharreko gaiak.....	35

2024ko dosierraren gako mezuak

1. 2024: Biolentzia areagotu den urtea

Indarkeria sistemikoaren berrordenamendu bat antzeman dugu, forma esplizitu eta lotsagabeenetarantz lerratzen ari dena, baita indarkeria inplizitu eta sinbolikoaren forma berrien erabilera ere.

1.1. Indarkeria matxista

Egungo egoera leherkor eta jasanezinean eragiten duten elementu berri batzuk hauteman ditugu:

- Indarkeria matxistaren aurkako borroka instituzionalizatzen ari da. Horrek baditu ondorio positiboak, baina, instituzionalizatzeko hori gertatzen ari den moduak kezkatzeko motiboak ere ekarri dizkigu:
 - » Indarkeria matxistaren hiperlegalizazioa, zigor-logika delarik nagusi. Horrek kaosa eragin dezake legegintzan; emakumeak biktimatzat jo ditzake, eta legea elementu babesle gorentzat; aldi berean, babesik gabe uzten ditu justizia formalerako sarbiderik ez duten emakume* asko.
 - » Estatuaren esku-hartzea ibilbidearen fase guztietan (prebentzioan, salaketetan, zigorretan...), arreta-zerbitzuak pribatizatzen eta prekarizatzen ari diren bitartean.
- Alor honetan, mugimendu feministak orain arte ez bezalako mobilizazio-gaitasuna erakusten ari dira, subjektu plural eta intersektional bat definitzen eta antolaketa-forma berriak proposatzen. Aldi berean, hainbat bidegurutze dituzte aurrez aurre:
 - » Nola erabili sare sozialak, kontuan hartuta ikusgarritasuna eta elkartasun-erakustaldiak ahalbidetzen dituztela baina arriskuak ere badituztela.
 - » Nola gainditu biktimen eta haien laguntzaileen artean zabaltzen den zigorgabetasun-sentsazioa, diskurtso negazionista baten nagusitasunari lotua.
 - » Nola gainditu gero eta handiagoa den segurtasun ezaren sentsazioa (batez ere, gazteen artean), espazio seguruak bultzatuz baina kontrol moduak handitu gabe.

- Ortzi-mugari begira, konpondu beharreko auzi hauek ageri dira:
 - » Biolentziaren kontzeptua konplexuagotzea, esanahiz husten duen hipertrofiaren eta negazionismo hegemonikoaren artean mugi dadin. Beharrezkoa da, indarkeriak ulertzeko, biolentzia horiek gertatzen diren espazioak eta horiek sufritzen dituzten pertsonen biografiak eta markak (posizioa menderatze anizkoitzeko sisteman eta norberaren bizitzako hainbat elementu garrantzitsu) gurutzatzea.
 - » Interseksionalitatean sakontzea, esentzialismo identitario batekiko hausturak ez dezan ekarri botere-harreman sexistak ezkututzen dituen proiektzio inklusibo bat.
 - » Akonpainamendu-, sendatze-, trebakuntza-, autodefentsa- eta erreparazio-lanen gaineko ardura hartzea, ez soilik erantzukizun instituzional moduan, baita zeregin militante gisa ere.

1.2. Lurraldea

- 2024. urtean behin eta berriz ikusi ditugu laborantzaren alorreko mobilizazioak (traktore-mar txak, EB-Mercosur akordioarekiko arbuioa). Protesta horiek egonezin sakon bat islatzen dute, baina kezkatzeko moduko elementuak ere erakusten dituzte: ez da auzitan jarri agronegozioaren zerbitzura dagoen Nekazaritza Politika Bateratua, ez dira aitortu jada ikusezinak ziren subjektuak (emakumeak*, proiektu agroekologikoak...), eta protestetan eskuin-muturrak izan du nagusitasuna (batez ere, Nafarroan).
- Krisi ekologikoari aurre egiteko, makroproiektuetan oinarritutako estrategia bat sendotu da energiaren, elikaduraren eta abarren inguruan, nahiz eta estrategia hori ez den demokratikoki erabaki, eta luraren eta gorputzen aurkako lurralde-indarkeriatzat jo daitekeen. Biolentzia mota hau guztiz asimilatzen ari gara, elite ekonomikoek ikuskera jakin bat eraikitzen eta normalizatzen ari direlako trantsizio berde eta digitalaren inguruan, zeinak guztiz deskonektatzen baititu jendartea eta lurraldea, eta sostengu publiko handia jasotzen baitu (ez hainbeste udal-mailan eta Iparraldean).
- Testuinguru honetan, erresistentziak artikulatu dira:
 - » Agroekologia, zeinak luraren zaintzatik erantzuten baitie eguneroko beharrizanei.
 - » Ekofeminismoa, artikulazio eta identifikazio politiko interseksional landatar-hiritar baterako espazio moduan.
 - » Makroproiektuen aurkako mobilizazioak, gero eta artikulatuagoak (nahiz eta oraindik erantzuteko gaitasun mugatua duten) eta bortizki kriminalizatuak.

- » Energia-komunitateen eta -kooperatiben ugaritzea (udal batzuen sostenguarekin), energiaren iturburua tokian tokiko estrategiekin eraldatzea helburu.
- Ortzi-muga gisa, hiru elementu nabarmentzen ditugu:
 - » Elikadurarako eskubide kolektiboaren aldarrikapenaren potentzialtasuna, elikadura-buru-jabetzarekin eta lurralderako eskubidearekin lotuta.
 - » Baserritartze sozialaren aldeko apustua, hortik abiatuta berriro konektatzeko lurraldea, bizitza eta gorputzak, eta birkonexio hori oinarritzat hartuta burujabetza ekofeministaren alde borrokatuko den herri-identitate bat sendotzeko.
 - » Krisi ekosozialari nola aurre egin erabakitzeko eztabaida ireki bat zabaltzeko beharra (berandu gatoz eztabaida honetara, eta minez), Euskal Herri osoan planifikatutako eta demokratikoki erabakitako egiturazko eraldaketa bateranzko bidean.

1.3. Gerra eta gatazka armatuak

- Egoera:
 - » Gatazka armatuak (asko eta asko aitortu gabeak) gero eta ugariagoak dira munduan, gero eta suntsitzaileagoak eta heriotza-tasa handiagokoak. Hazkunde horrek denik eta biolentziarik hilgarrienaren nagusitasuna islatzen du.
 - » Horrekin batera, gerraren paradigma aldatzen ari da: biztanleria zibilaren sarraskitzea, lurraldearen suntsipena eta bizitzaren deuseztapen erabatekoa nagusi diren egoera bate-rantz lerratzen ari da.
 - » Gastu militarra modu kezkagarrian ari da handitzen, eta diskurtso militaristak normaliza-tzen.
 - » Gerrek eragindako migrazio behartuak testuinguru ezegonkor batean gertatzen dira: mi-gratzaileen eskubideak oso gogor ari dira murrizten, eta babesgune izan behar luketen lekuak ez dira batere seguruak.
 - » Gerrak, beren zentzu zabalean (militarizazio-, gatazka- eta gatazkaoste-faseak; hortik era-torritako migrazio behartuak), indarkeria matxista eta sexual larrien agertokiak dira, eta genero-rol oso binario, estu eta kontserbadoreak sendotzen dituzte.

- Ortzi-mugak:
 - » Euskal Herrian tradizio handia dute intsumisioak eta mobilizazio antimilitaristak, eta gaitasun handia dago euskal enpresen eta erakundeen erantzukizuna salatzeke.
 - » Gaur egun, mobilizazio feminista autonomoak ez du presentzia espezifikorik alor honetan (ezta Gazako genozidioaren aurkako mobilizazio indartsuan ere).
 - » Ezinbestekoa da berezko aktibismo feminista bat berrartzea, gai izango dena gerren, patriarkatuaren, kapitalismoaren eta kolonialismoaren arteko lotura salatzeke, gerretako indarkeria matxista eta sexualen larritasuna bistaratzeko eta bake- eta gatazkaoste- prozesuetan feminismoak izan beharko lukeen parte-hartzea aldarrikatzeko.
 - » Gure oroimenak eta gure gerra eta erbesteek gaur egungo gerra globalekin izan dezaketelako loturak errelebo-hari bat irun dezake gerraren aurkako feminismo internazionalista eta antimilitarista batentzat, zeinak euskal gatazkaren analitika egindako hausnarketak berrartuko baititu.

1.4. Eskuin-muturra

- Eskuin-muturra gero eta gehiago ari da zabaltzen Europa osoan. Argi ikusten da hori hauteskundeetan, baina zabalkunde hori ezin da hauteskunde-fenomeno huts moduan ulertu. Erakunde eta espazio ekonomiko, juridiko, politiko, sozial eta kulturalen bilbatura gero eta handiago bat da eskuin-muturra.
- Gorakada hori ulertzeko, memoria historikodun begirada bat behar da, eta aintzat hartu behar dira bi arrazoi nagusi:
 - » Bizitzaren prekarizazioaren ondorioz, areagotzen ari da eskasia- eta beldur-sentsazioa, eta horrek erraztu egiten du soluzio baztertzailen onarpena.
 - » Kontraesan liberalak (berdintasunaren ezinezotasuna) bistaratzean, sistemaren aurkako erreakzioa piztu da klase-kontzientzia falta duen testuinguru honetan.
 - » Gako horiek genero-ikuspegi batetik irakurrita, hobeto uler dezakegu zergatik kokatzen diren gero eta emakume* gehiago eskuin-muturraren esparruan (aukeratze- eta sexu-askatasunaren aldarrikapenak ahulak gertatzen dira merkatuaren arrazionaltasuna eta desira maskulinoaren gailentasuna nagusi diren testuinguru honetan).

- Eskuin-muturra feminismoaren aurkako erreakzio bat da, indarkeria-forma bereziak dituen (manosfera, adibidez), eta lurralde bakoitzeko bereizgarriek ezaugarritzen dutena. Feminismo hegemonikoago baten aurrean, espainiar estatuan lidergo maskulino argia du, eta historikoki antifeminista eta biolentzia matxistaren ukatzailea da. Estatu frantsesean, lidergo femeninoak ditu, eta nolabaiteko modernizazio ideologikoan jokatzeko du.
- Eskuin-mutur guztiek instrumentalizatu egiten dituzte emakumeak eta feminismoa, eta horrela ezaugarri komunak dituen proiektu bat inposatzen dute:
 - » Proiektu hori ikaragarri kontserbadorea eta zis-heteronormatiboa da, eta goretsi egiten ditu familia tradizionala eta emakume zaintzailea (ezinbesteko figura baita pribatizazio- eta murrizketa-testuinguru honetan).
 - » Ikaragarri arrazista eta islamofoboa da: moralki goragokoak diren balioak defendatzen dituen komunitate zuri baten iruditeria eraikitzen du emakumeen ustezko defentsak.
- Premiazkoa da kontuan hartzea eskuin-muturra Euskal Herrian dagoela jada ekosistema gisa, baina oraindik badagoela arkitektura soziopolitiko bat sistemaren aurka egiteko gogoia beste bide batzuetara bideratu dezakeena. Sare hori zaindu beharra dago, haren izaera demokratikoa sakondu eta bizitzaren prekarietatearen aurrean eskubideak defendatuko dituen ortzi-muga bat eratu.

1.5. Erresistentziak

- Irekita dauden hiru erresistentzia-ardatz hautematen ditugu:
 - » Zigorgabetasuna salatzea, bai mundu-mailan (Netanyahu), bai egunerokotasunean (indarkeria matxistaren salaketa juridiko edo sozial bakoitzean); eta segurtasun ezaren sentazio iruzurtiak ezagutaraztea, sistema indartzeko balio baitute (terrore sexualaren mekanismoak; beste biolentzia, zeinaren aurrean eraikitzen baita nazio supremazista zuriaren proiektua).
 - » Biolentzia politizatzea, ikusezintasuna hautsiz (haren forma guztiak eta hura sufritzen duten pertsona guztiak izendatuz), haren izaera sistemikoa erakutsiz eta agenda politiko feministan txertatuz, baita agente sozial eta instituzional guztien agendetan ere.
 - » Ortzi-muga berriak sortzea indarkeria erabiltzen duen sistemaren berezko marko instituzionalaren mugetatik kanpo. Nabarmentzekoak dira: justizia feministaren planteamendua (biktimen ahots eta premietan oinarritua) edukiz eta praktikaz betetzea punitibismoaren aurrean (zeina legerian baitago, ez feminismoan); eta lurraldeak eta gorputzak birkonektatzen eta zaintzen dituzten praktikak bultzatzea.

- Jadanik metatuta dauzkagun ezagutzetatik sendotu behar ditugu erresistentziak:
- Euskal Herriko lurralde-ezagutzatik, euskal gatazkaren inguruan egindako lan guztia baliatuz eta emakume migratzaileek dakarzkiguten gatazka-genealogiekin loturak eginez.
 - » Ezagutza historiko feministatik, gure urratsen genealogia kritikoa eginez, eta hortik bestelako gaiak jorratuz, nahiz eta a priori ez diren feminismoaren berezko gaiak izan, eta belaunaldien eta diskurtsoen arteko erreleboa bermatuz.
 - » Krisian dagoen kapitalismo berde-kaki digital honetako indarkeriaren berrordenamendua-
ren aurrean, eraiki dezagun bestelako ortzi-muga bat, austeritate informatu eta parteka-
tua, deshazkunde planifikatua eta erantzukizun kolektiboa sustatuko dituen ortzi-muga
berri bat. Gure erresistentzia askotarikoek ilusioz betetako ortzi-muga hori elika dezaten,
burujabetza behar dugu.

2. Berdintasun politika publikoak

2.1. Sarrera

- Abiapuntu bikoitza
 - » Berdintasun politika publikoen ezinbestekotasuna, irakurketa kritiko eta eraikitzailea.
 - » Feminismo soberanista eta independentista gara. Politika feministak garatzeko eskumen osoa aldarrikatzen dugu.
- Hiru atal
 - » Berdintasun politika publikoen bilakaera Euskal Herrian.
 - » Politika hauen bi gako aztertu ditugu: estrategia duala eta feminismoarekiko harremana.
 - » Aurrera begira, ondorioak eta jauzi proposamenak planteatu ditugu.

2.2. Berdintasun politika publikoen sorrera Euskal Herrian

- Patriarkatuari aurre egiteko ibilbide luzean, berdintasun politika eta egitura publikoak orain dela gutxiokoak dira. Halere ibilbide esanguratsua egin dute, zenbait lurraldeetan behintzat, eta hausnarketa eta ebaluazio garaia dela uste dugu.
- **Bilakaera**
 - » 1975etik Nazioarte mailako markoa eraikitzen doa: behartze gaitasunik ez, baina, berdintasunerako estrategiak indartu eta ikusgai bilakatzen ditu.
 - » Frantziar Estatua: lege marko bat dago (2014 eta 2017ko legeak), erakunde ezberdinetan parte hartze parekidea ezarri eta hau bultzatzeko ekintza planak eta ebaluazioak eskatzen dituena.
 - » Espainiako estatua: 80. hamarkadan Frankismoak ezarritako estatusa eraisten hasi zen, emakumeon eskubideak aitortuz. 2020tik aurrera, pausu legegileak eman dira “sexu askatasunaren berme osoa”, “gizonen eta emakumeen egiazko ordansari-berdintasuna lortzeko” eta “trans pertsonen benetako berdintasuna eta eskubideak bermatzeko”. Ibilbide gorabeheratsua izan da halere: 2008ko austeritate politikek zuzeneko eragina izan zuten

(agendan eta egituran) eta 2023tik aurrera PP-VOX akordioak atzerakada ekarri du (negazionismoa, egiturak bertan behera, murrizketak...).

- » Hego Euskal Herria: lehenengo egiturak, ondoren planak eta azkenik legeak.
 - Hego Euskal Herriko autonomia estatutuek berdintasun politikak garatzeko eskumena dute. Alta, erabakimen osoa mugatua da eta estatutu hauek zaharkituak daude.
 - 80/90 hamarkadan egiturak sortu ziren. Emakunde eta Nafarroako Emakumeen Instituta (ondoren NABI bilakatuko zena). Gaur egun, biak lehendakaritzetan.
 - 90 hamarkadatik aurrera aldundietan eta udaletan berdintasun arloak. Alde handia lurralde eta udalen artean. Itsas argia izango diren udalak sortuko dira.
 - XXI. Mendean, Berdintasunerako legeak bi erkidegoetan.
- » Ipar Euskal Herria:
 - 2019an Herri Elkargoan ekintza plana eta 2021ean gomendioak udalentsat. Tartean berdintasuna lantzeko azpi batzorde bat, mistoa, proposamenak lantzen dituen, eragiteko gaitasunik ez duena.

• **Ibilbidea: deialdi bat eta zenbait ondorio**

- » Deialdia: Euskal Herriko berdintasun politika publikoen eta berdintasun unitate edo organoen mapa egitea ezinbestekoa da. Egiatzko mapa behar du izan. Ondokoa aztertzeko: zer osaera duten, zein kokapena erakundeen hierarkian, zer aurrekontu duten, zein eskumen dituzten eta zeintzuk beharko lituzketen berdintasun politikak garatu ahal izateko.
- » Euskal Herriko bilakaeran hiru momentu azpimarratu nahi ditugu:
 - 2011n ezker independentismoa instituzioetara bueltatzen da eta honek, besteak beste feminismoaren indarrari lotuta, erreferente bilakatuko diren politikak ekartzen ditu Gipuzkoako aldundira eta zenbait udaletara.
 - 2015ean, Nafarroan, UPNk instituzioetan zuen erabateko nagusitasunari bukaera eman zitzaion. Hamarkada luzeetan OPUS-ek ardaztu duen erregimenari mugak ezartzen hasiko zaizkio (NAEItik NABlra, Berdintasun legeak, Skolae).
 - 2017an Ipar Euskal Herria aitortuko duen instituzioa sortzen da: Euskal Elkargoa. Aukera bat berdintasun politika publikoetarako.

- » Euskal Herrian dagoen marko normatiboa zabala da eta sortu den arkitekturak asko eman dezake.
 - Dauden legeak eta plangintzak muturreraino garatzeko konpromiso politikoa behar da.
 - Berdintasun egituren prekarietatea da gakoa. Ekonomikoa eta pertsonala. Pertsona gutxi eta ez egonkorak edota subkontratatuak leku askotan.
 - Berdintasun politiken eraginkortasun falta aurrekontuak igoz eta ez egitura indartuz konpondu nahi da. Hau beharrezkoa da zenbait lekutan, baina, honek zerbitzuen eta asistentziaren pribatizaziorako joera indartzen du.
 - Berdintasun institutuak (Emakunde eta NABI) lehendakaritzan kokatuak izateak ez die berez eraginkortasuna ziurtatzen. Beste aukera batzuk aztertu behar dira.
- » Berdintasun politika eta egitura publikoek eraginkortasuna irabazten dute feminismoa indartsua denean eta instituzioekin elkar-ekintzan dagoenean. Maiz bi mundu paralelo babiliran aritu dira.
 - 90. hamarkadatik aurrera aldarrikapen feminista batzuk politika publikoetan gorpuztu eta feminista asko berdintasun teknikari gisa hasi ziren lanean.
 - Azken hamarkadan gainezkatzeko bat eman da: feminismoaren indar soziala, indar harremanen aldaketa erakundeetan eta feministak erakundeetan. Perspektiba berriak etorri dira: zaintza, interseksionalitatea, indarkeria.
 - Berdintasun politika publikoek sinergiak eragin dituzte eta askotariko egitura eta proiektuak sortu dira hauen inguruan: EHU-UPV eta NUP-UPNA-ko genero katedrak eta ikasketak, feminismoen eskolak edo elkarteak. Egitura eta eragile horien arteko harremana eta elkar-ekintza ez da nahikoa eta honek Euskal Herrian dagoen gaitasuna ez baliatzea ekartzen du, politika feministen kaltetan.

2.3. Berdintasun politikak. Lorpenak, zailtasunak eta ikaspenak

2.3.1. ESTRATEGIA DUALA: BERARIAZKO POLITIKAK ETA GENERO ZEHARKAKOTASUNA

• Zer eta zergatik?

- » 1980tik aurrera ekintza positiboaren estrategia garatzen hasiko da, guk berdintasuneko berariazko politikaz aritzea nahiago dugu. Berdintasuna bultzatzeko estrategia instituzio-

nalen multzoa dira: ahalduntzea, kontzientziazio feminista, desberdintasunak konpentsatzeko neurriak, ordezkaritza eremuetan kuotak ezartzea.

- » 1995ean Beijinen, Nazio Batuetako Emakumearen inguruko IV. Mundu konferentzian, zeharkakotasunaren edo maisnstreaming-aren estrategia proposatu zen. Estrategia honek politika publiko guztiei begiratzen die eta pixkanaka Euskal Herrira etorriko da ere. Azken finean, berdintasuneko berariazko politikak ez dira eraginkorrak gainontzeko esparruetan garatzen diren politika publikoak harreman patriarkaletan oinarritzen badira.

- **Berdintasunerako berariazko politikak**

- » Euskal Herrian hauek garatu dira nagusiki. Berdintasun sailen esku daude, hauetan dagoen pultsio feministaren esku.
- » Borondate politikoa eta testuinguru soziopolitikoa gako dira politika hauen eraginkortasunean. Horrez gain, Euskal Herrian alde handia dago lurraldeen artean.
- » Berdintasun berariazko politikak feminismoaren 3. olatuan hasi ziren eta, zalantzarik gabe, feminismoak orain planteatzen dituen gako eta eztabaidak nola barneratzen diren aztertu behar da (sexu eta genero identitateen eraldaketa, familiarizazioari aurre egitea...).
- » Politika hauetan emakumeen ahalduntzearen ardatza lehentasuna izan da (ahalduntze eskolak eta emakumeen etxeak). Gure ustez, gogoeta pausatua behar da proiektu hauen balioaren eta garapen moduaren inguruan (emakumeen etxeak), Euskal Herrian dauden esperientziak baliatuta.

- **Genero zeharkakotasunaren edo mainstreaming-aren estrategia**

- » Kontzeptuaren esanahia berreskuratu behar da: mainstreaming terminoak korrante nagusia esan nahi du. Alegia, berdintasuneko printzipioa politika publiko guztien iturburuan kokatu behar dela azpimarratzen du: politikak busti eta ezaugarritu.
- » Erakunde handietan berdintasun unitateak sortu dira beste sail edo departamenduetan, sustatze funtzioa dutenak. Udaletan apenas ez dira politika hauek gauzatu
- » Mainstreaming-aren estrategia oso tresna ahalsua da, osotasun batean pentsatzeko anbizioa duena, politika publiko guztietan eragin dezakeena eta erakundeak beraiek eraldatzeko aukera eskaintzen duena. Estrategia hau porrot izan denaren sentsazioari aurre egin behar zaio, ez baita inoiz ganoraz garatu izan. Administrazioaren funtzionamendua eta langile askoren formazio eza, zailtasun gehituak dira.

- » Berdintasun egiturek posizio indartsuagoa behar dute erakundearen arkitekturan eta tresna gehiago behar dira politika hauek garatzeko. Horretarako borondate politikoa eta itsas argi feminista gisa arituko den proiektu eraldatzailea behar dute atzean, berdintasunak urtu baino egitura instituzional guztiak ezaugarritu eta busti ditzan. Bestela, zeharkakotasuna tramite hutsa bilakatzeko arriskua dago.

• **Irakurketan agertu diren bestelako gogoetak**

- » Feminismoak agendan kokatu dituen gai estrategikoen gainean politika indartsuagoak behar dira. Indarkeria matxistaren aurrean asistentzialismoa baino eraldaketa behar da. Zaintzaren esparruari eta pedagogia zein hezkidetza feministari beste zentraltasun bat eman behar zaie. Hots, berdintasun politiken agenda zabaldu behar da, gainontzeko arloei ardura kendu gabe.
- » Berdintasun politika publikoak eraginkorrak eta eraldatzaileak izan daitezen feminismo eta mugimendu feminista indartsua behar da. Hau da, pultsio eta presio eraldatzailea behar dira.
- » Emakumeon emantzipazioa prozesu indibidual huts gisa baino prozesu kolektibo gisa ulertu behar da. Ondorioz, zeharkatzen gaituzten bestelako menderakuntzei erreparatu behar zaie ere eta hauek gainditzea berdintasunerako bidea ere badela ulertu.

2.3.2. MUGIMENDU FEMINISTAREN PAPER A ETA HARTU EMANA: BALANTZEA ETA IKAS-PENAK

- Berdintasun kontseiluak sortu dira erakunde ezberdinetan, berdintasun politika publikoak mugimendu feministarekin pentsatu, garatu eta ebaluatu behar direla ulertuta. Kontseilu hauen artean ezberdintasunak daude. Batzuk erabakiak hartzeko baliatzen dira, beste batzuk informazioa eman edota politikak zilegi bilakatzeko.
- Gure ustez, erakundearen erantzukizuna da feminismoa eta mugimendu feminista entzutea eta parte egitea. Berdintasun kontseiluak eraginkorrak dira? Funtzionamenduaren arabera. Edonola ere, ekosistema feminista Euskal Herrian oso aberatsa da, baina, aldatzen doa eta honek parte hartze moduak egokitzea eskatzen du. Diru-laguntza politikek nola eragiten dute erronka honetan? Zer sustatzen dute? Dependentsia eta burokrazia ala dinamika eta parte-hartze nahia?
- 2023ko Greba Feminista Orokorra mugarri bat ezarri du EHko mugimendu feministak instituzioekiko duen harremanean. Mugimendu feministak politika publikoetan parte hartzea eskatu du.

2.4. Berdintasun politika publikoak aurrera begira: zer jauzi, eraldatzaileak izan daitezen?

2.4.1. BERDINTASUN POLITIKA PUBLIKOEN ESTRATEGIA DUALA

- **Ondorioa:** genero zeharkakotasunaren estrategiak potentzial handiak ditu. Gutxi garatu da, ikuspegi tekniko eta burokratikoak gailentzen da.
- Jauzi proposamena:
 - » Esanahi politikoa berreskuratu eta politika publiko guztien norabidean eragiteko zereginari lotu.
 - » Administrazio beraren funtzionamendua eraldatu.
- **Ondorioa:** berdintasun politika publikoek feminismoarentzat estrategikoak diren arloetan eragiteko gaitasun txikia dute.
- Jauzi proposamena: berdintasun-arloek feminismoarentzat estrategikoak diren gai horien gaineko lidergoa indartu behar dute: indarkeria matxista, zaintzak, pedagogia eta hezkidetza feministak.

2.4.2. BERDINTASUN POLITIKA PUBLIKOAK BULTZATU ETA GARATZEKO EGITURAK EUSKAL HERRIAN

- **Ondorioa:** Euskal Herrian oso errealitate eta ibilbide ezberdinak ditugu. Testuinguru neoliberala eta erreakzionarioak duen eragina tentuz jarraitu behar da.
- Jauzi proposamena:
 - » Gertuko erakundeak indartu.
 - » Estrategia eta bitarteko publikoen biltegia eraikitzea, lurraldeen artean baliabide horiek partekatu eta erantzunkidetasuna bultzatzea helburu.
- Ondorioa: Berdintasun teknikarien rolaz eta, oro har, esparru honetan aritzen den langileen formazioaz eta sentsibilizazioaz hausnartu beharra.
- Jauzi proposamena: saretu, harremanak estutu eta formazioa ziurtatu.

2.4.3. BERDINTASUN POLITIKETAN FEMINISMOAREN ETA MUGIMENDU FEMINISTAREN PAPER A ETA INTERLOKUZIOA

- **Ondorioa:** feminismoak indarra du agenda markatzeko, erakundeek bere egiten dituzte zenbait aldarrikapen. Baina, feminismoak eta mugimendu feministak ez du aldarrikapen hauen ibilbidean eta inpaktuaren jarraipenean esku-hartze nahikorik. Berdintasun kontseiluek ez dute funtzio hori ziurtatzen, besteak beste izan duten erabilerarengatik.
- Jauzi proposamena:
 - » Euskal Herri osoko ikuspegia izango duen behatoki autonomoa sortzea. Lankidetzaren eragile duena eragile eta entitate feminista ezberdinen artean. Politika publikoen eta berdintasun politiken inpaktua neurtzeko, kanpo ikuskaritza eta kontrola ziurtatzeko.
 - » Erakundeek mugimendu feminista autonomoa sostengatzeko bideak aztertu ditzaten. Asmo ekonomiko ez duten eta interes orokorrekoak diren beste entitateekin egiten duen bezala.

3. Osasun mentala: gaixotu dugun mundu baten sintoma gara

3.1. Arazo bat dugu? Zer arazo?

- Badirudi datuek arazo sozial larri bat iradokitzen dutela, baina, aldi berean, erakusten digute soluzioak ez duela funtzionatzen: gero eta diagnostiko gehiago dago, gero eta medikazio gehiago... eta diagnostikoen kopuruak hazten jarraitzen du.
- Egun dagoen mina itzela da, eta premiazkoa da horretaz hitz egitea. Osasun mentala ikusezintasunetik atera behar da, baina ez ateratzen ari den moduan. Nagusitzen ari den dinamika ez digu balio: sufrimendua patologizatuz eta indibidualizatuz, estali eta barreiatu egiten dira sistemaren egiturazko akats eta gabeziak, bai eta erantzukizun indibidual eta kolektiboak ere. Horrela ez da arazoa konpontzen, handiagotu baizik.
- Feminismotik, gaur eta hemen dagoen sufrimenduaren irakurketa propio bat egin behar dugu, min hori eragiten duten faktoreak aztertuz eta proiektu modernizatzailearen hipokresia eta porrota salatuz. Era berean, erantzukizun kolektibo eta indibidualak hartzen lagunduko duten erantzun kolektiboak eraiki behar ditugu.
- Arazoa ez da diagnostiko asko egiten dela (eta horien ondorioz sendagai asko preskribatzen dela). Arazoak hiru dira, eta elkarrekin lotuta daude:
 - » Sufrimendu- eta ondoez-maila altuak (egun dagoen mina itzela da), tentsio kolektibo handien emaitza.
 - » Sufrimenduaren patologizazio eta medikalizazioa, ustelkeria farmazeutiko handiko osasun-sistema prekarizatu eta pribatizatu baten esparruan.
 - » Osasunaren ulerkera mendealdarra, zeinaren gainean oinarritzen baita ez soilik osasun-sistema, baizik eta baita munduan egoteko dugun modua ere.
- Arazo bikoitz bat dugu: emakumeen* antsietatea eta depresioa gaindiagnostikatuta daude, eta emakumeak* gainmedikatuta. Egia den arren genero-desberdintasunek sufrimendu-maila altuak eragiten dituztela, ez zaie arretarik jartzen arrazoi sozialei, eta ezaugarri femeninoei erantzuten dieten diagnostikoak erreproduzitzen dira (genero-alborapena egiten da osasun mentaleko arazoen definizioan).

3.2. Osasun mentalari eskaintzen zaion osasun-arreta

- Egungo osasun-sisteman osasun mentalari eskaintzen zaion arretak arazo larriak ditu: tratamendu biologizista da nagusi (ez teoriarik, baina bai praktikan); koordinazio-arazo ikaragarriak daude osasun-zerbitzuen, gizarte-zerbitzuen eta bestelako agenteen artean; prekarizazio- eta pribatizazio-mailak oso altuak dira; eta langileek lan-baldintza jasanezinetan egiten dute lan.
- Baina, gainera, arazoak daude sistemaren oinarrietan ere:
 - » Osasunaren ulerkerak mekanizista batean sostengatzen da, eta begirada hori dikotomikoa da (bereizi egiten ditu burua eta gorputza) eta hierarkikoa (gorputza arrazoiaren zerbitzura dagoen makina huts bat da). Begirada horrek jendarte osoa zeharkatzen du.
 - » Eredu biologizista horrek ondorio larriak ditu: galdu egiten da osasunaren nozio integrala (osasun mentala eta fisikoa bereiziz, besteak beste), osasuna gaixotasunik ezarekin lotzen da eta, ondorioz, gaixotasunean jartzen da arreta, eta ez pertsonarengan; ukatu egiten dira gorputzaren mugak, zaurgarritasuna eta heriotza.

3.3. Ezinegonaren jatorri sozialak

- Gaixotu dugun mundu baten sintoma gara. Talde sozial gisa, krisian jarri dugu mundua, gaixotu egin dugu. Aldi berean gaixotzen eta sufritzen dugu. Mundu horren sintoma gara onartzeak lagundu egiten digu mundu hori berreraikitzeke ardurak geure gain hartzen, mundu horretan bizitzeko beste modu batzuk arakatzu.
- Prekarietate materialak etengabeko segurtasun eza inposatzen du, eta eragotzi egiten ditu bizi-proiektuak. Horrek eragiten duen ondorenak zuzenean eragiten du osasun mentalean, abizen emozionalak jartzen badizkiogu ere. Langabezian egoteak antsietatea deitzen zaio; zaintzen gainzamarri, depresioa.
- Emakume* migratu eta arrazializatuon sufrimendu mailak bereziki altuak dira; ez soilik bizi baldintza materialengatik, baizik eta jasandako arrazakeriaren eraginagatik eta migrazio prozesuak askotan traumatikoak direlako. Horri guztiari osasun arreta jasotzeko zailtasun handienak dituztenak direla gehitu behar zaio.
- Honako tentsio kolektibo hauek hautematen ditugu:
 - » Aldibereko mezu kontraesankorren kudeaketa. Mundu magiko batean bizi gara esaten digute, non dena lor dezakegun (arrakasta, edertasuna, zoriona, betiereko gaztetasuna), eta aldi berean hondamendira doan mundu bat aipatzen digute. Horri espektatiben eta

errealitatearen arteko disoziazioa gehitzen zaio (eta espektatiba horiek askoz exijenteagoak dira emakumeentzat*): idealak lortzen ez ditugunean, hondoratu egiten gara (erru-eta porrot-sentsazioak).

- » Segurtasun ezak, batez ere gazteengan, ortzi-muga faltaren sentsazioa sortzen du. Etor-kizun-senari eragiten dio (bizi-proiektu bat irudikatzeko ezgaitasuna), bai eta oraina bizitzeko moduari ere (bizi-proiektu erreala bat gaur artikulatzeko ezgaitasuna). Ikuskera apokaliptikoek eragiten duten beldur existentzialari gehitzen zaio guztia.
- » Desloturak eta isolamenduak ukatu egiten dute komunitate baten parte izateko sentimendua, gure izaera sozialak berezko duena. Ez da bakardade existentziala (ahalduntzea lortzeko ezinbesteko tresna), baizik eta indibidualismo areagotu bat, gainerakoak lehia-kide-kategoriara baztertzen dituena. Fenomeno hori larriagotu egiten du harremanen digitalizazioak. Galarazi egiten du interdependentziaren kontzientzia sortzea, eta areagotu egiten du hutsune existentzialaren sentsazio gero eta zabalduagoa.
- » Indarkeria matxista sufritu izana genero-sozializazioaren berezko parte bat da emakumeentzat*; diziplinamendu-mekanismo patriarkal bat da. Biolentzia hori modu larriagoan edo arinagoan bizi izanda ere, trauma kolektibo hori partekatzen dugu. Zenbat indarkeria isildu ote dago emakumeen* erotasunaren atzean? Bereziki kezagarriak iruditzen zaizkigu haurren aurkako sexu-indarkeriaren maila ikaragarri altua eta haren inguruan egiten den ohiko lanketa, marko feministarik gabea.
- Gazteria gure jendartearen ispilua da: Alarma gorria piztu da gazte eta nerabeen osasun mentalaren inguruan, eta ez da gutxiagorako. Haien gaixotasunak gabezia sozialen isla dira. Bakardadea, espektatibekiko obsesioa, frustrazioa, biolentzia, lehiakortasuna, ortzi-muga falta... Horiek guztiek indar eta modu desberdinean eragiten dute generoaren, klase sozialaren eta jatorriaren arabera. Sufrimendua lantzeko beste tresna batzuk ez edukitzeak nabarmen areagotzen du psikofarmakoen kontsumoa.

3.4. Ortzi-mugak

- Beharrezkoa da osasun mentalaren inguruko estigmatizazioaren eta ezezagutzaren aurka borrokatzea.
- Lehenengo urratsa ondorearen kausa kolektiboak izendatzea da. Bigarrena, erantzun kolektiboak eraikitzea. Ez dira ondoz ondokoak; aitzitik, aldiberekoak izan behar dute: gure oinazea porrot egin duen proiektu zibilizatzaile baten parte delako kontzientziaren aurrean heldulekurik ez edukitzeak are indar handiagoz bultzatzen gaitzake bide patologizatzaile eta medikalizatzailean barrena.

- Ondoezari aurre egiteko modu berriak behar ditugu lehenbailehen, egoki uztartuko dituztenak tresna instituzionalen erabilera, batetik, eta itxaropenezko ortzi-muga komunen eta sendaketa-espazio kolektiboen eraikuntza, bestetik. Gaur egun daukagunetik haragoko errealitate bat irudikatu behar dugu, gaur daukagunetik onena erabiliz.
- Osasun-sistemari aldibereko aldaketa bikoitz bat exijitzen diogu: sistema publikoa indartzea (prekarizazio- eta pribatizazio-prozesua iraultzea; osasun-eskubide unibertsala praktikan gauzatzea) eta ikuspegia sakonki aldatzea (ikuskeria psikosozial, multidimentsional eta komunitario baterantz). Ez dugu baliabide gehiago nahi baldin eta horrek biolentzia gehiago eragingo badu eta egiturazko arazoak isilaraziko baditu. Baina baliabiderik gabe ere ez dago ikuspegi-aldaketarik. Horretaz gain, beharrezkoa iruditzen zaigu ustelkeria farmazeutikoaren kontra borrokatzea eta industria farmazeutiko publiko bat sortzea.
- Feminismoari hiru dei egiten dizkiogu:
 - » Osasun mentalaren eta zaintzaren arteko loturak lantzea: Ozen salatu behar da familietan ikusezin bihurtutako zaintzek sufrimendu emozionalaren arretan betetzen duten zeregina. Ulertu behar da zaintzea osasuna bere osotasunean berreraikitzea dela, eta zaintzeak berekin dakarrela zaurgarritasunaren eta heriotzaren gaineko ardura hartzea.
 - » Osasun mentalaren eta indarkeriaren arteko lotura gehiago lantzea: Premiazkoa da emakumeen* erotasuna politizatzea; salatu behar da sufrimendua adierazten dugunean erotuta gaudela esatea indarkeriaren isilarazte-mekanismo bat dela; estrategia kolektiboak eraiki behar dira erotasun antipatriarkal buruargia erakusten duten subjektibitate horiek sostengatzeko. Hori bereziki garrantzitsua da haurren aurkako sexu-indarkeriaren kasuan. Kritikaren erdigunean jarri behar da instituzio patriarkaletan patriarkalena: familia.
 - » Feminismo eroa eta psikofobia: Feminismo osoak ikasbidetzat hartu behar du bere ertze-tako bat, alegia, feminismo eroa. “Esperientziadun adituek” eta “psikiatriatik bizirik irten direnek” osatutako feminismo honek ozen salatzen ditu psi espazioetan (psikologiko, psikoterapeutiko eta psikiatrikoetan) gertatzen diren indarkeria mota askotarikoak, psikofobia menderakuntza-sistematizat jotzen du, subjektu politiko ero bat eraikitzen du eta osasun mentaleko bitartekoetatik kanpo garatuko den autogestio kolektibo baten alde egiten du. Feminismo osoak berraztertu egin behar du haren parte handi baten oinarri den psikofobia.
- Osasunaren gaineko burujabetza eta erantzukizuna: Arazoa egiturazkoa bada, egiturazko eraldaketa helburu duen ortzi-muga bat behar dugu. Geure osasunaz ahaldundu nahi dugu, maila kolektiboan nahiz pertsonalean, zentzu eta praktika kolektiboak artikulatuz oinazeari aurre egiteko; eta erantzukizunak bultzatu behar dira zentzu eraikitzaile batean (erru- eta frustrazio-sentimenduak alboratuz). Ortzi-muga honek hiru ardatz ditu:

- » Osasunaren ulerkera aldatzea: ikuspuntu integral eta multidimentsional bat garatu behar da (gorputza, burua eta bihotza gure presentziaren hiru adierazleak direla ulertuz); eta osasuna oreka moduan ulertu behar da, ez % 100ean bikaina den egoera gisa, geure zikloak eta zaurgarritasunak errespetatuz (gaixotzea osasun-prozesuaren parte da, nola katarroa hala tristura). Ulerkera honen arabera artikulatu behar da osasun-sistema, erdigunean jarritz pertsona, eta ez gaixotasuna.
- » Geure erantzukizun partekatu, indibidual eta kolektiboen inguruko kontzientzia izatea: sufrimendua sistemikoa bada, aldaketak bultzatzeko aukera handiak ditugu, sistemaren parte baikara. Espazio osasungarriak edukitzeko, norberak bere orekaren ardura hartu behar du bere gain. Ahalduntze-ikuspegi batetik, eta ez erruduntasunetik, osasuna konpromiso politiko moduan uler daitekeela planteatzen dugu.
- » Sufrimenduari aurre egiteko palanka kolektibo gisa jardungo duten tresnak sortzea: hemen azaldutako filosofia kolektiboa landuko duten egiturak, ekimenak eta espazioak, minaren aurrean indartsuago izaten lagunduko digutenak; osasunaz, gorputzaz, emozioez eta lotsagatik isildutakoak hitz egiteko egitura emozional propioak. Era berean, une egokia da hau aukera berriak arakatzeko (antzinako jakintzak edo kutsu espiritualagoa duten eza-gutzak berreskuratze, adibidez).

2025eko Tfem Unean egindako ekarpenak

2025eko otsailaren 1ean Talaia Feministaren Unea izan genuen Bilboko Sarrikoko Ekonomia eta Enpresa Fakultatean. Bertan, 200 emakume* inguru elkartu ginen. Aukera izan genuen 2024ko dosierraren inguruko iritziak partekatzeke. Bi mahai-ingurutan edukiak aurkeztu ondoren, lantalde txikitan gogoeta kolektiboa egiteko parada ere izan genuen.

Honako testu honetan, han egindako askotariko ekarpenak jasotzen ahalegindu gara. Ekarpene horietako batzuek dosierreko edukien oinarriak indartzen dituzte; beste batzuek, berriz, galderak eta zalantzak proposatzen dituzte, zehatzak edo zabalak; beste ekarpen batzuek dosierrean jorratzen ez diren gogoeta-ildoak iradokitzen dituzte. Ezinezkoa da egun hartan beren ahots eta iritziak partekatu zituzten kide guztien ezagutzak eta iritziak jasotzea, baina, kolektibo gisa, hemen jaso ditugun hitzetan behar bezala aintzat hartuak sentituko garela espero dugu.

1. 2024: Biolentzia areagotu zen urtea

1.1. Biolentziak berrantolatzea eta larriagotzea

Hasi baino lehen, garrantzitsua da aipatzea gogoeta kolektiboa, hein handi batean, indarkeria matxistetan ardaztu zela. Beharrezkoa da kontuan hartzea azpimarra hori hemen jasotako ekarpenak behar bezala kokatzeko.

Indarkeria orokortuaren pertzepzioan bat etorri ginen, baina zalantza da ea benetan indarkeria areagotzen ari den edo gehiago ikusarazten ari den. Dena dela, funtsezkoa da indarkeriaren testuinguruaz hitz egitea bi elementu kontuan hartuta:

- Indarkeria ez da gauza berri bat, beti izan baita sistema ezartzeko tresna eta mekanismo bat.
- Ezin dugu indarkeria pentsatu bat-batean edo ustekabean gertatzen den zerbait balitz bezala. Continuum bat da, sakontzeko edo hedatzeko prozesu bat.

Indarkeria orokortuaren pertzepzioa hainbat elementuri lotzen zaio, honako hauei, besteak beste: plano global zabal batean, gerraren logikaren hedapena aipatzen da; plano hurbilago batean, indibidualismo eta lehiakortasun gero eta handiagoak. Lurraldearen kontrako indarkeria da az-

pimarratu den beste elementu bat; berria ez izanik ere, garrantzitsua da onartzea nola finkatzen den krisi ekosozialarekin. Azkenik, indarkeria matxistaren modu berriak errekonozitu dira, eta sare sozialetako indarkeria nabarmendu da.

Modu bereziki intentsuan lotzen dugu indarkeria orokortua bi elementurekin:

- Alde batetik, feminismoaren lorpenen aurreko erreakzioarekin. Erreakzio horrek bat egiten du 2008az geroztik piztutako krisi sozioekonomikoak zenbait gizon zuri, hetero eta klase ertainekoengan eragin duen galtzaile sentipenarekin. Puntu honetan galdera garrantzitsuak sortzen dira: nor sentitzen da galtzaile?, zergatik eta nola erreakzionatzen du?
- Beste alde batetik, eskuineranzko prozesu orokortu batekin, zeinak ez baitio eskuin muturrari ez eskuinari soilik eragiten. Berezi arduratzen gaitu ikusteak nola eragiten dien ezkerreko (edo ustezko ezkerreko) espazioei. Horrek esan nahi du espazio horiek berez bihurtzen direla indarkeria erabiltzeko jokaleku, eta, gainera, indarkeria legitimatzen edo sustatzen dutela. Hemen, gogoetarako bi alderdi ditugu. Zalantzan jartzen dugu zer puntutaraino lotzen den “ezkerraren” eskuineratzea hegemoniaren bila diskurtsoa aldatu izanarekin. Eta galdetzen dugu baita ere, ez ote den eskuin/ezker ardatz horretatik urrunago jo behar, bestelako haustura politikoko ardatz batzuk erdigunean kokatuta. Horien artean, ardatz patriarkala. Bestela esanda, ezkerrekoa izateak ez dakar feminista izatea. Eta hori gero eta agerikoagoa da gaur egun. Azkenik, jarrera erreakzionarioak (arrazistak eta transfoboak, esaterako) hautematen ditugu zenbait espazio feministatan ere.

Lehenengo alderdiari lotuta (indarkeria gehiago ote dagoen ala gehiago ikusten dugun), argi eta garbi hautematen da zigorgabetasun handiagoa dagoela, bereziki indarkeria matxistari dagokionez. Horren ildoan, indarkeria gehiago ikustearren arrazoa izan daiteke izendatzeko eta argitara aterarazteko gaitasun handiagoa daukagula. Baina izan liteke legitimazio handiagorearen ondorio ere; zigorgabetasun handiagorekin gerta daitekeelako da indarkeria esplizituagoa.

Eta horrek zenbat galdera pizten dizkigu: zer gertatu ote den indarkeria matxistak inolako ondorio-rik eragin gabe gertatu ahal izateko; zer prozesu gertatu diren edo “non despistatu garen”. Marko horretan, agian, honako gogoeta hau egin genezake: indarkeria, sarritan, ustekabeen gertatzen da, ez dugulako izendatzen. Lan feminista da hori izendatzea, argitara ematea eta deslegitimizatzea. Hauxe da indarkeria kuestionatzeko unea: zerbait arbuiagarri gisa ikusten dugunean. Baina, ondoren, erreakzio bat dago, eta horrek dakar edo indarkeria berriro legitimatzen dela (ikusgarria da, baina onargarria), edo indarkeria espresuki ukatzen dela (diskurtso negazionisten ugaritzea). Azken elementu aipagarria da askoz gaitasun handiagoa daukagula indarkeria kuestionatzeko termino abstraktu edo sistemikoetan, hurbileko espazioetan gertatzean hura onartu eta salatze baina.

Azkenik, onartzen dugu badirela indarkerien inguruko eztabaida kontzeptual garrantzitsuak itxitzat eman ezin ditugunak nahiz eta denbora daramagun haiekin bueltaka. Eztabaida horien artean,

zenbait kidek galdetzen du zer puntutaraino dagoen indarkeria guztien erroan indarkeria matxista, indarkeria patriarkala paradigma politiko bat baita (ikuspegi horretatik, dosierrean indarkeria matxista izendatzen duguna zuzenago legoke indarkeria sexista deituta). Azkenik, hainbat kidek proposatzen duten beste galdera bat da noraino luzatu behar ote den indarkeriaren ideia: dena indarkeria bada, azkenean, ezer ez da indarkeria?

1.2. Feminismoarentzako erronkak

Lehenik eta behin, adostasuna dago ikusaraztea beharrezkoa delako ideiarekin, ikusten ez ditugun indarkeria modu asko daudelako oraindik. Bereziki aipatzen da lurraldearen kontrako indarkeria.

- Baina, ikusaraztean, oso argi eduki behar da argitara ateratze horrek oso prozesu konplexuak pizten dituela. Hori ari gara ikusten, batez ere, indarkeria matxistaren inguruan. Zer gertatu da ikusarazten joan ahala?
- Beren burua erasotzat jotzen dutenen erreakzioei arreta jartzea. Nola erreakzionatzen dute interpelatuak izan diren moduagatik oso erasoak sentitu diren gizonek?
- Eraikitzen ditugun antolamendu eta erantzun kolektiboei arreta jartzea.
 - » Indarkeria matxisten kontrako manifestazioetara joaten den jende asko ez dago politizaturata.
 - » Jende gazte askok gaitasun handia du indarkeria izendatzeko eta salatzeke, baina ez, ordea, haren kontra kolektiboki antolatzeke.
 - » Feminismoa hedatzeak kide feminista asko egotea dakar, baina ez dakar, ordea, kolektibo feministak sortzea.
- Akonpainamendua egiteko dugun gaitasunari arreta jartzea: benetan lortzen al dugu akonpainamendua kolektibo bihurtzea?
- Erakundeen zereginari arreta jartzea: zenbaitentzat, indarkeria erabiltzeko espazio berri bat da (emakumeek epaitegietan salaketa jartzean, esaterako); beste emakume batzuentzat, segurtasun espazio bat izan daiteke.
- Ikusarazteko eta salatzeke moduei arreta jartzea: ez dugu epai-bidea baztertzen, zalantzak zalantza. Baina, indarkeria instituzional posible hori dela eta, batzuetan bestelako bideak erabiltzen dira (batez ere, sare sozialak). Nola erabiltzen ditugu?. Nola irten lintxamenduaren

(beste batzuek antipunitibismoaren ideia bereganatzea dakarrena) eta salaketa bideak erabiltzeari uko egitearen arteko dikotomiatik?

Gogoeta zabal hauez gain, zenbait kidek eztabaida eta proposamen zehatzak zabaldu dituzte, besteak beste: kolektiboetan –feministak eta mistoak– barne gatazkei heltzeko premia; indarkeriari zein neurritan erantzun behar ote diogun indarkeria kolektiboarekin (indarkeriaren erabilera legitimoa) galdetzea; autodefentsa feministak nor interpelatzen duen galdetzea, eta nola saihestu emakume batzuk (emakume zaharrak, esaterako) kanpoan gera daitezen.

Azkenik, badira galdera garrantzitsuak dossierrean proposatzen diren ilusio ortzi-mugen inguruko borroka kulturalaren inguruan (austeritate informatu eta partekatua, desazkunde planifikatua eta erantzukizun kolektiboa eskainiko duen ortzi-muga). Argi dirudi ortzi-muga horretan badirela galdu beharreko pribilegioak. Eta horrek ekar lezake diskurtsoaren eta praktikaren artean deskonexio handia sortzea. Edo, bestela, galera horiek ikusaraztean, oposizio-erreakzio bortitza piztea.

Horregatik guztiagatik, funtsezkoa dirudi, alde batetik, ortzi-muga hori justiziaren ideiarekin lotzea (eta hortxe sartzen da justizia feministaren ideia ere). Eta, bestetik, ilusioari lotu, eta ez distopiarri. Ortzi-muga hori gako distopikoan izendatzea eskuin muturraren haztegi izan daitekeela planteatzen da (oso ikuspegi etsipengarri baten aurrean, errazagoa izan daiteke eskuin muturrak proposatzen dituen konponbide baztertzailerei heltzea). Horren ildoan, zalantza sortzen du kolapsoaren nozioaren egokitasunak. Azkenik, uste dugu ortzi-muga ilusioari lotuta izendatzea egin daitekeela, alde batetik, ortzi-muga hori ezinbestean ideia bat, diskurtso bat den heinean, eta, bestetik, ilusio ortzi-muga hori dagoeneko praktika zehatz eta txikietan dagoen heinean. Tokiko praktika ilusionagarrietatik abiatzea proposatzen da, Euskal Herri mailako ortzi-muga bat elikatzeko.

2. Berdintasun politika publikoak

2.1. Berdintasun politika publikoak eta egiturak

Aurrerapausoak egin dira teorian (berdintasun legeak, dosierrean aipatzen ez den EAEko Trans legea...), instituzioetan gaia kokatze hutsarekin publiko bilakatu da eta aitortza maila bat dago, sozializatu da; baina termino sinonimotzat hartzen ditugu berdintasuna eta feminismoa, eta ez dira berdinak. Berdintasuna sustatzeko politika eraldatzailerik ez dago, programak, ekintzak, gauzak egiten dira, baina politika feministarik ez daukagu. Politika feministak instituzioetan garatzeko borondate politikoa behar da, eta ikuspegi feminista ziurtatu behar da.

Hutsuneak daude berdintasun politiken inplementazioan. Baliabide ekonomikoen jarraipena egin behar da, eraginkortasun falta dago sailen arteko harremanik ez dagoelako. Aldundietan, udaletan... bakoitzak bere eredu, politika eta antolaketa ditu, ez dago ezer amankomuna, harmonizatu beharra dago. Berdintasunaren aldeko adierazpenez harago, EUDEL-en eta Emakunderen jardunari buruzko irakurketa kritikoa egin behar dugu, atzera urratsak egiten ari dira, oharkabea.

Desberdintasunak daude eremu geografikoaren arabera. Berdintasun politikak hiri-eremuei begira pentsatzen dira, herri handietatik egiten dira, horrela bizi dugu landa eremuetan. Herri eta udal txikietan ez dago berdintasun sailik edo kontseilurik, ez dago ezer; gehienez, teknikari bat izan dezakegu eta elkarte feministaren bat badago errazago izan daiteke eragitea.

Lurraldeen arteko ezberdintasunak eta desorekak ere nabariak dira: toki batzuetan esperientzia eta lorpen handiak daude; beste zenbaitzuetan, ezin arrankatu bitartekoak falta direlako. Ikuspegi nazionala eta Euskal Herri osorako estrategia bateratua falta dira, baina, aldi berean, aniztasuna eta esperientzia ugari daude, elkarrengandik ikasteko aukera ematen dutenak. Prozesu desberdinak ematen dira administrazio-lurralde bakoitzean eta horrek zailtzen du mugimendu feministaren baterako jarduna.

Berdintasun politikak ez daude emakume* guztiei zuzenduta, batzuk kanpoan gelditzen dira, bertan jaio diren emakumeei* begira diseinatzen dira. Ikuspegi antiarrazista eta antikapazitista falta dira berdintasun planetan. Era berean, ez dira gazteriaren ikuspuntutik ere planteatzen. Instituzioak bere burua interpelatu beharko luke: zer egiten ari da hori gertatzeko?. Instituzioetatik baztertuak sentitzen diren emakumeei* ez zaie galdetzen ea zer behar edo nahi duten, haien iritzi politikoak baliorik gabe uzten dira arrazializatuak, aniztasun funtzionala edo gazte izateagatik.

Berdintasun departamentuen eta teknikarien zeregina, politika espezifikoak eta ekintza zehatzak planifikatzera mugatzen da, gainontzeko politika publikoak genero ikuspegiarik gabe garatzen diren bitartean. Gainera, ez da ekintza horien eragina neurtzen.

2.2. Zeharkakotasunaren estrategia

Euskal Herriko toki askotan izugarria da prekarietate maila eta zeharkakotasunetik oso urrun gaude, biziraute egoeran gaude. Nahiz eta begirada integralean aurrerapausoak eman izana, berdintasun politika espezifikoetatik harago, gainontzeko politika publikoetan zuzenean eragiteko gaitasunik ez dago. Zeharkakotasuna bermatzeko hainbat urrats eman daitezke soilik legea betetzeko eskatuz eta kontraesanak agerian utziz.

Ezinbestekoa da mainstreaminga gakoa izatea, eta horrek politika guztien gaineko hausnarketa orokorra eskatzen du, ondoren estrategia zehatzagoak pentsatzeko. Hurrengo urratsa izango litzateke, tresnak eta prozesuak proiektuaren arabera antolatzea.

Positiboa da gero eta feminista gehiago egotea instituzioetan, metatutako esperientzia dago eta, beraz, sareak eratzeko aukerak; baina kontuan hartu behar dugu norainokoa den espazio horietan dugun lidergoa, intzidentziarako ditugun tresnak identifikatu, bereziki botere politikoaren erabakiguneetan.

Baina erakundeak eta euren egiturak dira zeharkakotasuna oztopatzen dituztenak. Egitura bera da arazoa, arkitektura instituzional oso bat sortu da sistemaren mesederako. Egitura horiek eraldatzeko politikak eta horretarako estrategiak pentsatu eta planifikatu behar ditugu, ezker independentismotik eta mugimendu feministatik.

Lankidetzan, elkarlanean jardutea da klabea, horregatik behar dugu gobernantza feminista; horren inguruko gogoeta egin behar da (lidergo ereduaz, demokraziaz, parte-hartzeaz...), jauzi teoriko-praktikoa eman ahal izateko. Eta bide horretan, funtsezkoak dira alderdien jarduna (bereziki, feminismoa beraien praktikan lehentasun gisa kokatzeko zailtasunak gainditzeari begira) eta mugimendu feministaren aliantza. Administrazioaren egitura feminismotik pentsatu behar dugu, ikuspuntu integral horretatik. Eta mugimendu feministak izan behar du eraldaketarako eta interpelaziorako akuilu.

2.3. Instituzioen eta mugimendu feministaren arteko erlazioak

Instituzioen eta mugimendu feministaren arteko harremanetarako espazioen azterketan sakondu behar da. Mugimendu feministak ez du, oro har, parte hartzen, irakurketa kritikoa egiten du egungo elkarrizketa-espazioen inguruan. Berdintasun Kontseiluak intentzio onez jarri ziren martxan, berdintasun politiketan eragiteko, elkarrekin gune bat sortu nahian, baina gaur egun, zalantza asko sortzen zaizkigu: MF-rena baino instituzioen beharra dira gune horiek?, noraino baldintzatzen dute MF-ren jarduna?, nortzuengana iristen dira instituzioen ekimenak eta nortzuengana iristen dira MF-renak?.

Hainbat behar identifikatu dira: elkarrizketa-espazio horietan parte hartzen duten feministen ekarpenak legitimatzeko beharra; jarrera feminista zorrotza duten berdintasun teknikariak behar dira, eta horrekin batera, proiektu politikoa behar da. Batzuetan berdintasun teknikarien benetako borondatea dago, baina bakarrik daude, periferian, eta dituzten beharrak ez dira mahai gainean jartzen; horregatik, nahiz eta ondo pentsatuta egon, hartutako erabakiak ezin dira egikaritu, ez dute aurrera egiten.

Mugimendu feministaren, berdintasun teknikarien eta zinegotzien arteko elkarlana dagoenean, jendeak eskertzen dituen emaitza oso onak lortzen dira. Beharrezkoa da aitortzatik eta konfiantzan oinarritutako harremanak garatzea.

Espazio horietan erabiltzen den lengoaiak ere, atzera botatzen du emakumeen* parte hartzea. Askotan, beste testuinguruetatik kopiatutako terminoak erabiltzen dira (mainstreaming-lengoaia), adibidez, “eskualdeko emakume ekintzaileen sarea” eratzea proposatu, baina mezua jaso behar duten emakume horiek ez dira ekintzaile sentitzen. Mezuak eta proposamenak tokiaren arabera egokitu behar dira.

Elkarlanerako eredua eta horretarako sortu beharreko espazioak birpentsatu behar dira. Eta hori oso lotuta dago publiko-komunitario ere duaren inguruko eztabaidarekin. Publiko-komunitarioa definitu gabe dagoenez, zalantza da ea ez ote den zerbitzu publikoen prekarizazioak ekarritako eredua izango.

Zaintza publiko eta komunitarioaren inguruan instituzioetatik planteatzen diren politikak eta mugimendu feministaren aldarrikapenak artikulatzeko beharra dago. Eta ideia horien arteko intersektzioak identifikatzeko abiapuntua izan daitezke, emakume* arrazializatuen eta zaintzako langileen presentzia bultzatzea, emakumeen* kooperatiben esperientziatik ikastea, kolektibo horien guztien ekarpenak entzun eta aintzat hartzea.

Oso garrantzitsua da erakundeek jendarte zibilaren beharrak entzutea, baina ez dugu benetako konpromisorik ikusten herritarren parte-hartzea bultzatzeko instituzioen aldetik. Martxan jarritako parte-hartze prozesuak ez dira eraginkorrak, adibidez, ez dira iristen inon militatzen ez duten pertsonengana.

Instituzioekiko erlazioak emankorrak izan daitezke zerbait erreala egiteko bada, baina askotan, denbora galtzen ari garen sentsazioa dugu. Instituzio-espazioetara bertaratzea eta parte hartzea ez dira gauza bera. Bilera eta espazio formaletatik haratago, benetako eta askotariko parte-hartze ereduak eta espazioak sortu behar dira. Feminismotik birpentsatu behar dugu nola parte hartu espazio instituzionaletan. Parte-hartze espazioak bai, baina emakumeon* eta herritarron beharretatik eraikiak.

2.4. Aurrera begiratzeko ideiak

- Iraultza behar da, susperraldi berri bat, mugarri bat, ilusioa eta tentsioa berreskuratzeko, kontzeptu eta ortzi-muga berriak eraikitzeko. Ezberdindu behar dira berdintasun politikak eta politika feministak, eta azken hauek zabaltzeko unea iritsi da. Politika feministak garatzeko, gobernantza feminista eta estrategia bateratua behar dugu; subjektuak zeintzuk diren identifikatu behar dira, bakoitzak bere funtziotik eragiteko, instituzioetan eta jendartean.
- Euskal Herrirako plan estrategiko feminista baterantz joateko urratsak eman daitezke zeharkakotasunaren ikuspegia txertatuz egun existitzen diren elkarrizketa sozialerako kontseilu horietan (Kontseilu Ekonomiko eta Soziala, Lan Harremanen Kontseilua...). Mugimendu feministak hartu beharko luke gaur egun sindikatuek duten paperaren antzekoa, eta horrela aitortua izatea.
- Berdintasun politiken kalitate estandarraren (“soilik eta eskusiboki”) ideiarekin apurtu behar da, eraldaketarako sailak sortuz. Erakundetze forma berriak martxan jarri behar ditugu. Departamenduen logikatik haratago joan behar dugu, udaletako esperimendu txikietatik hasita, horien arrakasta bermatzeko tokian tokiko eztabaidak eta erabakimena baliatuz; hortik eman daiteke jauzi teoriko-praktikoa gobernantza feminista lortze aldera.
- Transfeminismoaren ekarpenak ahalik eta azkarren berdintasun politiketan txertatu behar ditugu. Eta horrek badakar hizkuntza egokitzeko beharra: berdintasuna, emakumeen etxea..., termino horien ordeztu, bestelakoak pentsatu beharko ditugu.
- Europatik etorriko diren neurriei adi egon beharko dugu. Berdintasuna bestelako eremuekin lotuko delako, adibidez, jasangarritasunarekin.
- Borondate eta konpromiso politikoak behar ditugu, eta hori zer den eta nola gauzatzen den aztertzea behar da. Fokua alderdien estrategia politikoan jarri behar da, haien proiektuetan, garatzen dituzten politikak feministak izatean. Alderdi guztiei, baina bereziki, bere burua ezkertiar, soberanista eta feministatzat duenari exijitu behar diogu feminista benetan izateko prozesua egin dezala.
- Formakuntza behar da, baliabide gehiago eta heziketa feminista, baina teknikari guztientzako, ez berdintasun teknikarientzako soilik.
- Herri txikietatik, gaztetasunetik, antiarrazismotik eta antikapazitismotik begiratu behar dira berdintasun-politikak eta hortik berrasmatu berdintasun-planak.
- Zeharkakotasunetik mainstreamingera: genero ikuspegia zehar lerro izatetik politika publiko guztien oinarria, korrante printzipala izatera pasa behar da. Ez dago politika publikorik genero ikuspegiarik gabe. Zirimiritik tsunamira joan behar dugu.

- Ikuspegi interseksionala behar dugu, egiteko forma berriak. Estrategia dualean sakontzeko, produkzio sektore guztietan ezagutza feminista txertatu behar dugu.
- Euskal Herriko mapa egin behar da, leku bakoitzaren argazki erreal bat behar dugu, herri bakoitzean dauden berdintasunerako baliabideak, emakume* taldeak eta talde feministak identifikatu, nortzuk garen eta non gauden jakiteko, sinergiak aztertzeko, ofizialak ez diren bestelako ekimenak bultzatzeko; finean, berdintasun-politikak herri bakoitzaren ezaugarri demografiko eta beharren arabera dimentsionatu ahal izateko eta egoera aldatzeko baldintzak dauden tokietan pausu errealak eman ahal izateko.
- Biltegia, artxibo edo sare artikulatu bat behar dugu. Sareak eratu (herri eredugarriak, teknikarien artekoa...) elkarrengandik ikasteko, esperientziak trukatzeko, tresnak, balorazioak, praktika onak eta egindako akatsak ere partekatzeko, elkar babesteko, profesionalizaziotik datozenak feminista egiteko. UEMA moduko zerbait sortzea?, EHko berdintasun egitura instituzionalen sare bat?
- Politika publiko guztien jarraipen-sistema egin behar da, inpaktu adierazle zehatzekin.
- Jendartearekin harremanetan aritzen den Akademia behar dugu gure alde.
- Maskulinitatearen gaineko gogoeta ezinbestekoa da jauzi berri bat emateko.

2.5. Egin beharreko eztabaidak

Instituzioekiko erlazioak birpentsatzeko eta lideratzeko ardura kolektiboa dugu Mugimendu Feministan, eztabaidatzeke dago zer harreman mota eta elkarriketa-markoak nahi ditugun.

Zaintza lanen eta indarkeriaren gaiak, berdintasun departamenduetatik gidatu behar ote diren zalantzak daude, agian, erakundetze berriak beharko genituzke horretarako.

Euskal Herri mailako behatokia sortzeko proposamenak zalantzak sortzen ditu: politika publikoen segimendurako beharrezkoa izan daiteke, baina bestelako lehentasunak daude eta zaila izango da eratzea kontuan hartuta lurraldeen arteko desberdintasunak; gainera, nork sortuko du, noren ardura izango da, nork kudeatuko du, nondik aterako dira baliabideak...? Talaia Feminista ere izan daiteke horrelako hausnarketarako gunea.

Mugimendu feminista finantzatzeko ideiak ere kezka sortzen du: horren kudeaketak ez ote duen proiektuak gauzatzeko denbora murriztuko.

3. Osasun mentala: gaixotu dugun mundu baten sintoma gara

3.1. Zergatik gai hori?

Gai horrek gutako asko interpelutzen gaitu. Kezkatuta gaude ondoez orokorraren maila altuarekin, eta jakin badakigu zer garrantzi daukan irakurketa komun eta politikoa izateak. Kide batek aipatzen duen bezala: “gaiari heltzeko bada garaia”. Bereziki kezkatzen gaitu gazte eta nerabeen egoerak; bai eta emakume* migratu eta arrazializatuen egoerak ere.

Batzuk alderdi profesionaletik iritsi gara gai honetara. Osasunaren (mentala) esparruan lan egiten dugu: psikologia, erizaintza, ikerkuntza, laneko osasuna... Edo gure lan esparruan aplikatu nahi dugu (bereziki hezkuntzan edo gazteekiko lanean, oro har). Horrela, bat-batean, kosta egiten zaigu lehen pertsonan hitz egitea, sufrimendu pertsonala onartuz; eta oso gutxik dugu harrotasun zoro bat abiapuntu. Bagara batzuk bai, sufritzen ari diren seme-alaben ama garen aldetik, kezka aipatzen dugunak. Hala ere, saioan zehar, pixkanaka, gero eta gehiago hitz egiten dugu lehen pertsonan, eta ondoez emozionaleko esperientzia propioak partekatzen hasi gara.

3.2. Dokumentuaren gaineko iritzi orokorra

Oro har, oso ondo balioetsi da osasun mentalari modu kolektiboan heltzeko espazioak edukitzea, bai irakurketa kolektibo eta politizatu baten bila (askok ezjakintasun handia adierazi dugu), bai sendatze propioaren bidean (osasun mentalari buruz hitz egiteko espazio kolektiboak edukitzearen garrantzia, seguruak eta jende ezagunetik harago doazenak).

Oro har, dokumentua hurbila eta erabilgarria da, eta edukiekin bat gatoz, bereziki alderdi hauekin:

- Irakurketa mendebaldeko gizartean kokatzearen garrantzia.
- Lehen mailako arreta gainezka dagoelako ikuspegia.
- Gaur egun osasun mentala ulertzeko eta artatzeko modu indibidualizatuaren eta medikalizatuaren kritika.
- Burua/gorputza dikotomiarekin hautsi beharraren garrantzia.
- Ondoezen erro sozial eta kolektiboak eta horiek sistemarekin duten lotura.

- Erantzukizuna norbanakoena zein kolektiboa delako ideia.

Hala eta guztiz ere, kontuan hartu behar ditugun zenbait arrisku adierazi dituzte zenbait kidek; bereziki, alderdi hauei lotuak:

- Horri buruz hitz egiteak nahi ez den ondorioa eragiteko arriskua: kaltea handitzea eta/edo patologizazioa larritzea, alegia.
- Osasun mentaleko egoera larrienak desitxuratzeko eta hutsaltzeko arriskua.
- Kolektibizatzeak normalizatzeraren eraman gaitzakeelako arriskua: nola saihestuko dugu ondorena, dituen erro kolektibo sakon horiek edukita?

3.3. Ekarpenak: elementu berriak eta sakondu beharreko gaiak

Jarraian, heldu beharreko zenbait hari edo sakondu beharreko zenbait ertz jaso ditugu.

- **Militantzia ereduak eta sortzen ditugun komunitateak:** gai hori aipatu da bai osasun mentaleko arazoen sorrera gisa, bai ortzi-muga gisa ere. Militantzia ereduetan eta ulertzeko moduetan sakondu behar dela planteatzen da, sarritan, sufrimendu iturri direlako. Espazio mistoei (mugimendu sozial mistoetan, alderdietan, sindikatuetan... bizi den indarkeria) nahiz espazio feministei buruz hitz egin da. Zenbait espaziotako lehiakortasuna aipatu da, eta adierazi da errazagoa zaigula sistemaren indarkeria salatzea guk eraikitako espazioetan gertatzen den indarkeria salatzea baino. Pertsona neurodibergenteek lekua izango duten espazioak zein neurritan sortzen ditugun ere galdetu dugu. Mahaigaineratu da, baita ere, zaintzaren ideia gaizki ulertu izanak oso jarrera indibidualistetara eraman ote gaituen, taldeak eta proiektuak ere zaindu behar direla begietatik galtzea eragiteraino. Zenbait kiderentzat berriz, aldaketa positiboa gertatu da; arreta handiagoa jartzen zaie zaintzari eta afektuei. Azkenik, ondorenak partekatzeak eta haiei heltzeko dinamikak dituzten kolektibo feministen esperientziak partekatu dira (esaterako, Munduko Emakumeak eta emakume* bertsolarien ahalduntze eskola).
- **Ikuspegi intersektional dekoloniala:** ikuspegi horretan sakondu beharra planteatu dugu. Esaterako, emakumeak* gainmedikatu egiten direla esatean, argitu beharko genuke ea guztiekin berdin egiten den. Izan ere, emakume* migratuen gainmedikazioa hautematen dugu, haien ondorezaren normalizazioarekin lotuta. Proposatzen dugu onartzea ez dugula soilik mendebaldetik eta mendebaldeari buruz hitz egiten, baizik eta gutako askok zurtasunetik hitz egiten dugula; horrek dituen inplikazioak aztertu behar ditugu.
- **Klasearen ardatza:** hainbat planotan agertzen da: Alde batetik, prekarietate materialaren eragina aintzat hartuta, eta, aldi berean, galdera bat proposatuz: nork eduki dezakeen gaizki sen-

titzeko aukera (zalantza dugu prekarietate handiena sufritzen duena ote den gaizki sentitzeko aukera gutxien dituen). Beste alde batetik, terapia pribatuetara jotzea (hein batean, osasun sistemaren akatsei lotua) klase-privilegio argia da. Eta hori errepikatu egiten da modako terapia alternatiboekin. Desparekotasun hori salatu beharra azpimarratu da. Horri lotuta, prekarietate materialaren eraginari buruz hitz egitean, nabarmendu da bizimodu duina edukitzea ahalbidetuko diguten baldintzen oinarritzko markoa definitu beharra daukagula.

- **Kartzela:** kartzelan dauden emakumeen* egoerari eta kartzelatik irteteko prozesuan dauden egoerari heldu behar zaie. Nola zaindu osasun mentala kartzelan eta kartzelatik irtetean? Osasun mentalari dagokionez, gatazka politikoak Euskal Herrian dituen inplikazioak kontuan hartzearen garrantziaz ere hitz egin da.
- **Gazteak eta nerabeak:** zenbait kide bereziki arduratuta daude, bai ama direnak bai hezkuntza sisteman lan egiten dutenak. Sakelako telefonoaren eta sare sozialen eginkizuna azpimarratu da; eta harreman mota horietan gorputzen faltak duen eraginari buruz hitz egin da. Apustuen gaia ere gehitu da. Aldi berean, alarma bat piztu da: analisia zer adinetatik egiten dugun adi egon behar dugu. Belaunaldi-jauzia hartu behar dugu kontuan.
- **Ondoez emozionala prozesu bat dela ulertzea:** hainbat kidek azpimarratu dute beharrezkoa dela lehertu arte gaizki egote hori normalizatzeko eta naturalizatzeko joera saihestea. Edo ondoeza metatzen ari dela ikusteko ezintasuna, horrek sufrimendu-egoerak bat-batean sortzen den zerbait bezala ulertzera baikaramatza.
- **Medikazioa eta industria farmazeutikoa:** industria farmazeutikoaren interesak eta gauzatzentz dituzten negozioak kezka handia sortzen duten gaiak dira. Subjektu produktibo izaten jarrai dezagun lortzeko mekanismoak direla aipatu da. Zenbait kidek adierazi dute horixe dela osasun sistemaren xedea: gu medikatzea erritmoari eusten jarrai dezagun. Planteatu da gaur egun medikazioa erabiltzen ari ote diren lehen droga erabili zuten bezala, gizartea desaktibatzeke helburuarekin, alegia; eta medikazioa normalizatzen ari ote diren beste droga batzuk (alkohola, kasu) normalizatu diren bezala. Aipatu da irakurketa dikotomikoak egitea saihestu behar dugula, beste droga batzuekin iraganean gertatu bezala.
- **Beste eragile eta erakunde batzuk:** azkenik, dokumentuan jorratu ez diren (edo behar beste jorratu ez diren) beste eragile eta erakunde batzuetan jarri nahi da fokua.
 - » **Gizarte-zerbitzuak:** gizarte-zerbitzuekiko deskoordinazioak duen garrantzia nabarmendu beharra dagoela planteatu da; gaur egun duten eginkizuna ulertu behar dela eta gizarte zerbitzuak ere gure ortzi-mugen parte izan daitezkeela (jende asko dago esparru horretan lanean, eta ezagutza handiarekin).
 - » **Hezkuntza-sistema:** kezka handia eragiten du ikasleen artean dagoen sufrimendu maila

altuak, bai eta sufrimendu horren aurrean jokatzeko moduak eta profesionalen egoerak ere. Ratio handiek prebentzio lana egitea eragozten dute; ikasleak jarrera disruptiboak dituenengan soilik jarduten da. Osasun mentaleko arazo bat diagnostikatzen dietenean gazteei ezartzen zaien estigma ere aipatu da.

- » **Ondoeza eragiten duten erakundeak:** planteatu da kontuan hartu behar direla eliza eta hezkuntza-sistema ondoeza sortzen duten espazio gisa. Desobedientzia beste ortzi-muga bat gisa proposatu beharra adierazi da. Era berean, hainbat aldiz aipatu da araura (besteak beste, zisheteroaraura) ez egokitzeak eragiten duen sufrimendua.
- » **Berdintasun politikak:** hainbat kidek gaiarekiko interesa agertu dute berdintasun politiketatik nola heldu aztertzeko, eta/edo uste dute berdintasun politikek rol bat bete beharko luketela osasun mentaleko arazoei aurre egiteko.

